

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LAN ETA ENPLEGU SAILA

1403

AGINDUA, 2022ko martxoaren 18koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez izendatzen baita, izendapen askeko sistemaren bidez, Lan Ikuskaritzako burua –511211/4 kodea–, Gipuzkoako Lan Ikuskaritzako Zuzendariordetzan.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.d) artikuluan agindutakoaren arabera, eta Gipuzkoako Lan Ikuskaritzako Zuzendariordetzan Lan Ikuskaritzako buruaren lanpostua –511211/4 kodea– izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia egiteko Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2022ko otsailaren 8ko Aginduaren hirugarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorritz (2022ko otsailaren 22ko EHAA, 38. zk.), honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Shandra Vivas Rodríguez Lan Ikuskaritzako buru izendatzea (kodea: 511211; dotazioa: 4), Lan eta Enplegu Saileko Gipuzkoako Lan Ikuskaritzako Zuzendariordetzan.

Bigarrena.– Agindu honek 2022ko martxoaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta beronen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuari, hilabeteko epean, agindua EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 18a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.